

Elkarteen Gaineko Zerga - Prentsaurrekoa

Joan den abenduaren 18an, egoera surrealista bizi izan zen genuen Gipuzkoako Batzar Nagusien bilkuran. Batzar Nagusi hauetako batzarkideek existitzen ez zen foru arau proiektu baten aldeko edo kontrako botoa eman behar izan genuen. Foru arau proiektu horrek ez zuen bere ibilbidea amaitu, batzordeak atzera bota zuelako. Konturatuko zineten moduan, Elkarteen Gaineko Zergaren Foru Arauaz ari naiz hizketan.

Gogora ekarri nahi dut Batzar Nagusi hauetako Ogasun Batzordeak ebatzi zuena 2008ko abenduaren 12an:

“Elkarteen Gaineko Zergari buruzko uztailaren 4ko 7/1996 Foru Araua aldatzeko Foru Arau proiektua atzera botatzen da”.

Kito. Horixe izan zen ebazpenak zehatz-mehatz esan zuena. Beraz, ebazpenak ez zuen jasotzen emendakinen bat edo boto partikularren bat mantentzeko inongo aukerarik. Batzar Nagusietako Araudiaren 108.2 artikulua esaten duenez, boto partikularrak “emendatutako proiektuaren testuan” oinarritu behar dira.

Beraz, erabat zalantzazkoa da foru arau proiektua bere osotasunean hartzeko erabili zen boto partikularren prozedura. Lehenengo eta behin, boto partikularra egin ahal izateko testurik ez zegoelako. Bestetik, EAJk eta EAK ez zutelako bilkura mantendu ahal izateko osotasunerako emendakinik ez emendakin moduan ez boto partikular moduan. Berez, osotasunerako emendakinak aurkezteko bilkura abenduaren 10ean egin zen, eta emendakin guztiak atzera bota ziren.

Begi bistakoa da testua Batzordean atzera bota ondoren, Diputaziora bueltatu behar zela berriro.

Eta guztia borobiltzeko eta araudia muturreraino eramanez, mahaiko talde nagusiek erabaki ahal zuten kontrako ebazpena izan zuen testua eta onartutako emendakinak bilkurara berriro bueltatzea, zegozkion emendakinak eta boto partikularrak mantenduz, baina beti ere horiek “emendatutako proiektuaren testuan oinarrituta izanez gero”.

Baina hori ere ez zuten egin. Aralarreko zerbitzu juridikoen arabera, Batzar Nagusietako araudiaren 108. artikulua jasotzen duenaren bidetik prozedurarekin jarraitu izanak prozedura akatsa du, eta beraz, bilkurak aipatutako foru arau proiektua onartu izana biziata dago eta errekurtsioa aurkezteko modukoa da.

Eta horixe da Aralarrek erabaki duena: elkarteen gaineko zerga bilkuran onartzearen kontrako administrazioarekiko auzi-prozesua abian jartzea.

Eta norbaitek bere buruari galdetuko dio: zergatik nahastu du kontu hau horrenbeste Diputazioak testua behin bueltan jaso eta gero tramitera berriro aurkeztu ahal zuenean Batzar Nagusietan behar besteko babesla lortu eta gero?

Erantzuna oso erraza da. Foru gobernua inprobisazioan oinarritzen da, ez du bere egitekoen plangintzarik egiten, kudeaketarako gaitasunik ez du, eta jakina, kontu guzti-guztietan zezenak harrapatzen du. Arau proiektua urte amaieran aurkeztu zuten Batzar

Nagusietan, nahiz eta 2008 urte osoa izan zuen hori egin ahal izateko. Babes nahikoa ez zutela jakin arren, Batzar Nagusietara eraman zuten, eta azkenean, pitxerra Batzordeak apurtu zitzaien. Eta jakina, urtea amaitzeko 13 egunen faltan, dekretazoaren formula antidemokratikoa erabiltzea ez zuten nahi izan, hauteskunderen bezperan geundelako.

Eta azkenean, hanka-sartzea onartu beharrean, erdiko kalea hartu dute eta Batzar Nagusietako Araudia muturreraino eraman dute; hala, joan den abenduaren 18ko bilkuran bizi izan genuen egoera surrealistara eraman gaituzte, zeinetan existitzen ez zen foru arau proiektua bozkatu behar izan genuen.

Como ya hemos dicho, Aralar va a recurrir a los tribunales el dudoso procedimiento utilizado para aprobar esta norma foral y nuestro objetivo no es otro que dejarles muy claro tanto al PNV como a EA, que se ha terminado la época en que la derecha vasca puede manejar las instituciones a su antojo.

Esan dizuegun moduan, Aralarrek auzitegietara eramango du foru arau hau onartzeko erabili duten zalantzazko prozedura, eta gure helburua da erakundeak euren nahierara erabiltzeko euskal eskuinaren aroa amaitu dela erakustea EAJri eta EAri.